



«Pertsonaia bitxiak eraiki ohi ditu [Vargasek], izaera nabarrekoak, baina enpatia handiz idatziak den-denak»

BEÑAT IRASTORZA  
Itzultzailea

rra eginez trazatzen ditu izaerak, eta umore zertzeladak ere sarri eransten ditu. Izatez, Vargasek bere idaztanceran bistaritzen duen umorea goraiatu du itzultzaileak. Baita beste hauek ere: «Karisma», «poetika» eta «elkarrizketen bizitasuna», argotean idatzia zenbaitetan.

Gainera, Vargasi nobela beltzen konbentzioetatik urruntzeko balio dion ezaugarri bat ere nabarmendu du Irastorzak: *Les évangélistes* serieko hiru protagonistak ez dira ez komisarioak ez detektibeak, historialari gazteak baizik. Bestalde, *Altxa, hildakoak* nobelaren hasieran ez dago ez hilotzik ez eta desagerpenik ere, ezpada «zuhaitz baten ustekabe-ko agerpena». Sophia Simeonidis kantariaren lorategian azaltzen da arbola hori, eta egun batzuen buruan desagertzen da hura gero.

### Bera ere enigmatiko

Vargasek ez du autograforik sinatzen, apenas eskaintzen duen elkarrizketarik, eta uzkur azaldu ohi da jendaurrean adierazpenak egiteko, okasioa zernahi izanik ere. Tantaka eman ditu, adibidez, literaturarekin duen harremanari buruzko azalpenak. Edonola ere, 2009ko Gijongo (Espainia) Aste Beltzean aitortu zuen literatura «angustiaren kontrako senda-gaia» dela beretzat. Bestalde, idazleak inoiz adierazi du «beltz» gisara sailkatutako literaturak balio duela errealitatea erakusteko, baina berak haratago nahi duela iritsi: «Errealitatea erakutsi, baina amestuko genukeen bezala». Surrealismo ukituak antzematen dituzte batzuek haren nobeletan.

Nobelagintzatik kanpo eginak ere badira Vargasen bidean azpimarratzekoak. Politikan, ezkerreko militantea da, eta alderdi ekologisten alde azaldu da jendaurrean. Gainera, zenbait saia-kera idatzi ditu, hala nola *Petit traité de toutes vérités sur l'existence* (2001), baita zientzia argitalpen batzuk ere, izurri beltzari buruzko *Les chemins de la peste, le rat, la puce et l'homme* (2003) kasurako. Zientziari loturikoak benetako izenez sinatzen ditu. ●


### KRITIKA

## Zelulosazko plaza bat

Irati Majuelo

istorio bihurriak, anekdota sinesgaitzak, auzokide arteko txutxu-mutxuak, txiste gogoangarriak. Halakoxeak dira Uxue Alberdik bere azken liburuan bildu dituen kontakizunak, ahoz aho pasatakoak denak, azkenerako, orri zurira iritsi arte. Elkar argitaletxearekin eman du argitara *Belarriko kilkerra*, memoriaren ertz batean kir-kir kir-kir dabiltzan pasadizoak bilduta.

Ahozko literaturaren tradizioa oinarri hartuta osatu du, beraz, liburua Alberdik. Ahotik belarrira behin eta berriz bidea egiten duten kontakizunek ez dute, sarri, egile ezagunik, ez eta sorburu zehatzik ere. Hala, kontalariaren gaitasun komunikatiboei eta istorioaren mami gatzdun edo harrigarriari zor zaie haien arrakasta, euskarri fisikorik gabe



'BELARRIKO KILKERRA'

Idazlea: Uxue Alberdi.

Ilustratzailea: Begoña Durruti.

Argitaletxea: Elkar.

denboran irautera daramatzan zera horri. Horretarako, baina, hizlari trebeak eta entzule arretatsuak behar dira. «Eskas ditugu elkarri istorioak kontatzeko lekuak eta momentuak» adierazten du idazleak hitzaurrean, eta hala, ordainetan, zelulosazko plaza bat eratu du liburu honen bidez. Bide batez, akaso, irakurleari ere bere gertakizun xebreak gogorazi eta aditzera emateko gogoia piztuko diolakoan.

Ahazkotik paperera zer-bait galduko zen, ia seguru, baina hizkuntza joriaz, malguaz, jostariaz idaztea lortu du Alberdik, ahazkotasunetik gertu-gertu. Hiztegia aberastu nahi duenarentzat aukera bikaina eskaintzen du lan honek; hitz jokoak, ateraldi burutsuak, kale hizkera, antzinako berbak, denetarik biltzen baitu. Askotarikoak dira kontamoldeak ere, badira metafora poetikoak darabiltzaten istorioak, muinera iritsi arte itzulinguruka abiatzen direnak edo tentsioa azken lerroa arte mantentzen dutenak. Guztiek dute, finean, helburu bera, entzulea (eta kasu honetan, irakurlea) entretenitzea.

Hori hala, umorea, nazka, lilura zein zirrararen eragiten dute kontakizun laburrek. Lau ataletan banatuta daude, biltzen dituzten narrazioen izaeraren arabera. Lehenengo atalean, *Marrubi-la-*

*purretan* izenekoan, istorio ipurtarinak gailentzen dira, lagunartean egindako gaiztakeriak, apustuak eta amarruak. Bigarrenean, aldiz, heriotza da gai nagusia, eta harekin batera, umore beltzez tindatutako gertakizun xebreak. *Minaren gela* hirugarren atalak biltzen ditu, akaso, kontaketa ilunenak, lotsagabekeria eta aldarte bihurria erabat galdu gabe, baina. Azkenik, *Ispilua*-k erakusten ditu giza gorputzaren arrunckeria naturalak, umore handiko anekdoten bidez.

Ahoz ahokoak indartu ohi duen naturaltasunak eta gaiztakeria puntuak lagunduta, beraz, epai moraletik urrun azaltzen dira pertsonon aldrebeskeriak, ezintasunei aurre egiteko burutazioak eta ondokoa xaxatzearen poza. Alberdik gaur egun ezohiko zaigun liburua kaleratu du, kontaktaren garrantzia eta dibertsioa erdigunean jarrita. ●

### KRITIKA

## Ahalduntzen

Imanol Mercero

G arai batean, lekuan lekukoa baino eza-gutzen ez zenean, emakumeek eme jaiotzeagatik zituzten nekeak eta miseriak bertakoak zirela pentsa zezaketen. Amestu zezaketen bazirela bestelako lurralde eta kulturak, zeintzuetan ar edo eme jaiotzeagatik inor ez zen gutxiesten ezta zapaltzen ere. Ezagutza orokortu denean, azken bazterra arakatu dugun honetan, ordea, badakigu neska jaiotzea erronka handia dela munduaren bira osoan, kultura eta lurralde (ia?) guztietan.

*Neska jaiotzea* liburua gai hau gazteen artean zabaltzeko baliabidea da. Azalpen liburuen formatuarekin osatutako lan honek munduko kultura eredu desberdinetatik adibideak bildu ditu helburua betetzeko.

Gai zehatzak aukeratu dira,



'NESKA JAIOTZEA'

Idazlea: Alice Dussutour.

Ilustratzailea: Alice Dussutour.

Itzultzailea: Aztiri.

Argitaletxea: Ttartalo.

eta formatu berarekin osatu da gai bakoitzaren aurkezpena. Liburuaren egitura borobiltzeko, hitzaurrea, aurkibidea, atze-solasa eta gaitan sakontzeko baliabideak daude.

Liburuaren mamia sei gai hauek dira, hurrenez hurren: hilekoaren tabua, gorputz ez-normatiboak, gizarte patriarkala, ezkontza behartuak, ablazioa eta feminizidioa.

Bai, gai oso hunkigarriak

dira, eta berebiziko garrantzia dauka azalpenak emateko moduak. Ez da ahaztu behar nerabeentzat (ere) badela liburu hau.

Gaiak garbi hitz egiteko eta gordinkeriak saihesteko estrategia izan da neska protagonista bat aukeratzea gai-leku bakoitzean, eta biografia moduko bat eratzea. Halatsu: Nepalgo Kaneilak hilerokoarekin bizi izandako esperientzia kontatzen digu, ingurukoek zer esaten dioten, eta nork eman dion laguntza eta adorea. Segidan, azalpen testu laburren zarpiko sorta bat dago, *chaupadi* tradizioaren sorrera azaltzen, tabuak zer diren argitzen, hilekoaren azalpen biologikoa ematen, tabuaren aurkako jarrera aldarrikatzen, eta beste.

Bai testu sorta hau, eta bai biografia ere, idazkera oso xehekoak dira, ulerterrazak. Gainera, album ilustratuaren formatutik gertu dagoelako edo, biografiako atala letra larriz idatzita ematen da.

Bada, egituraketa hau (biografia lehenik, azalpen testuak segidan) bost aldiz

errepikatzen da, munduko bost lekutako bost pertsonaiekin. Lehena Nepalgo Kaneilaren kasua da, hilerokoaz hitz egiten diguna. Bigarrena Euskal Herriko Elaiaren kasua da, gorputz ez-normatiboez ari dena. Hirugarrena, Afaganistango Mahnoosh eta bertan bizi duten muturreko patriarkatua. Laugarrenik, Kenyako Makenak azaltzen digu nola aurkezten dieten ablazio genitala eta ezkontza behartua euren kultur ondarea baltz bezala. Amaitzeko, bosgarrena Mexikoko Luisa da, feminizidioaz ari dena.

Esan bezala, argitasunaren eta gordintasunaren arteko oreka bilatzen duten testuak dira, eta egileek asmatu dutela iruditzen zait. Dibulgazio lan txukuna da, irakurle guztientzako eskuragarria, eta honetxegatik, ezinbesteko irakurketa gazte zein helduontzat, neska zein mutil. Liburuaren amaieran *Gehiago jakiteko* atal jantzi bezain aberatsa dago, film, liburu, elkarte eta bestelako proposamen sorta zabalarekin. ●